

¡JESUS BIOTZA!

Discurso leído por su autor en la Sesión literaria en honor del P. MENDIBURU celebrada en la Casa Consistorial del Valle de Oyarzun la tarde del 14 de Julio de 1882.

Jaunak: Ala nola Eguzkia atera zaigun gaur, gorputzeko begiak in ikusi dezagun festa pozgarri au, ala berean datorkigu Mendiburu Oiarzuar illezkorraren oroitza, animako begiak zabaldurik gure gurasoen beti-betiko Fede eder sekulan baño beroago daukagunarekin, begiratu zaigun, emen lurreko gauza utzi bearditugunak azturik, ura salbatutako gu salbatu bear gaituen gauza bakar orri: ¡Jesus Biotzari! ¡Bai! guztia da biotza ¡Jesus gurea!, eta ala, gizonari, Berak egiña dalako Bere antzera ez dio eskatzen Beretzat biotza baizik.

—*Atozte Nigana, penatuak eta nekez beteak arkitzen zeraten guztiak, Ni izango naiz zuen gozaera!* esatendigu; eta ¡zeiñ da penatua arkitzen ez dan Euskalduna....

¡O Euskaldúnak!: Gure izate guztia, lengoa, oraingoa, gerokoa, betikoa, betiraunde edo eternidade guztikoa, dago Biotz artan gordea, da Biotz ura eta au jakiñik, ez gaitzela izan zentzu gabeak; Biotz artara eraman zagus gure biotza, eta Argandik gure lagunurko edo projimoaren biotzera ekarririk, ill arteraño elkar maitatuaz, elkarri lagunduaz bizi gaiten deserri onetan. ¡A!... Irakur ditzagus Mendiburu gogargituak izkribatutako liburu miragarriak Biotz arren edertasun ugariak choraturik, eta bertatik maitekodegu ¡Jesus! ¡O Euskaldunen Biotza! ¿Zeiñek esan lezake gaur, Mendiburuk atzo esan zuen eraras, ¿nolakoa Zeran?..... ¿Izkribatzalleak? ¿Biursariak? Baliteke, baño ez da segurua. Menturaz, menturaz ordu oetan gutaz aztuena mendian arkitzendan gaisoren batek, iñork baño geiago onek maite izatea gertalitekelako; zergatikan ¿nola jakin lezake ¡Amoria! zer dan, maite ezduenak? Eta... ¡O mirarien miraria! ¡Jesus! arkitzendalako, denbora berean ¡ala erregeren ehandian nola ikazkiñaren chaolan!

¡O!.... ¡Jesus! zer dan jakiteko, alde batera utzirik, ala nai bada,

(1) Matth. II.

gizon argiak Mendiburu buru dutela izkribatutako gauz ederrak, irakurtzagun gure biziaren liburua bera; ¿zer esatendigu jaiotzetik iltzerario? ¿zer azkeneko orrian, bizia daukagunean ala nola Azaroan osatua arbolean? ¡A!... ikusi zagun, eriotz latzak arrapatutako, gizon gaisoa, menturaz usterik guchienean, ala nola miruak kantari dagoen choria. ¡Orduan! ¡ai! batere denborik eta ezaguerarik gelditzen bazaito, maite naidu Jesus, maite naidu asko eta damu du bere biotz guztitik len ez maite izandua. Au ikustendegu egunero, eta geok ontaratu bear degula jakiñik, ¿maite degu gure alegiñ guztian?

Gaur eun urte Jaunari kontu eman zion Mendiburu; ¿non dira orduan bizi ziran gizon chiki ta aundiak? Emendik eun urtera gaur baño obeto festa au bera egingodala deitzat; gu ¿non izango gera? Noski Jesusen kolko parerik gabekoan izan naiko degu; bada, Jesusekin bizi bear degu.

¡Bai!... ¡Bai! Jarrait zaiogun Mendiburu onaren ejemplo birtutezkoari; erakutsi zaiogun gure aurrai ¡Jesus! izen Santua! bedeinkatzen, adoratzen, maitatzen, eta beren biotz chikiakin Bere oñetako zauri maitagarri aeri muñ ematen, gure guraso Euskaldun zar, gaur Zeruan gure zai daudenak, guri erakutsi ziguten bezela chikiak giñanean; eta..... ¡O Euskaldúnak!: Ez daiela ¡sekulan!..... Mendibururen lur ontan, blasfemiako edo arneguzko pekatuak egiñ.

¡Ez!... ¡Ez, Jesus gure Biotza! Gurutzearen oñetan belaunikaturik, eskatzen dizugu biotz guzti-guztitik, ordutik ordura Zureagoa izan dedilla gure izatea, eta azken arnesetako ordu estu ura izandezagula lasaiena, gozoena, ederrena, ¡choragarriena!, ikusirik aurrean ¡Aita Biotza! besoak zabaldurik bere ume gaisoa laztandu naiean, eta atzean, ¡Mundu ontako nekeen buka!...

¡OJesus!... ¡Maite zaitu Euskal-erri Zureak! ¡Bete ditzatzu gure biotzak Zure amorio utsez Mendibururena bezela, eta Munduan egitentidugun festa oek, ez ditezela izan Zureganonzko gure maitagoaren agiria baizik!

¡Oiarzuárrak, Euskaldúnak eta gizon guztiak!:

¡Maitedezagun elkar ¡Jesus Biotza! maiterik!

ANTONIO ARZÁC.

Oyarzunen, 1882-ko Uztaren 14-can.

